

LEIOA. Ikasketak eta udarako alternatibak aztertuko dabez Aterpen

Ekimen ugari gertau dauz Gazte Bulegoak hileotarako

Maiatzaren 19an gazteendako pintura lehiaketea egingo dabe



VERONICA MUÑOZ

Leioako Aterpe Gazte Bulegoa Sabino Arana kalean dago, Konekta Zaitetz gunearen ondoan.

Veronica Muñoz |

Ekitaldien egitarau zabala pres-tatu dau Leioako Aterpe Gazte Bulegoak datozan hile bietarako. Hasteko, ikastaro bi antolatu dauz. Gazteek eskolako urteak amaitu ostean egin gura dabezan ikasketak aukeratzeko orientazioa jaso daien izango da lehenengo ikastaroa.

Hain zuzen be, horretarako gazteen ezaugarriak eta interesak hartuko dabez kontuan, eta baita ikasketok behar munduan daukien urteerea be. DBH-n eta Batxilergoaren azkenengo mailetan ikasten daben gazteei zuzenduta dago ikastaro barri hori. Sei ordu iraungo dauz, hiru saioan bananduta, maiatzaren 6an, 7an eta 8an. Doan izango da.

Bigarren ikastaroa be doan izango da. Oraingoan, gazteek daukiezan arazoak konpontzeko bideak topau daiezan antolatu dabe ikastaroa Aterpe Gazte Bulegokoek. Gazteek gizartearen integretako bide egokiak aztertuko dabez lau egunetan, maiatzaren 14tik 17ra arte, eta komunikazioa eta hartu-emonak sendotzeko gomendioak be jasoko dabez gazteek. DBHn, batxilergoan eta goi mailako hezkuntza zikloetan ikasten dagozan leioaztarrek parte hartzeko aukerea eukiko dabe.

Horrezaz ganera, maiatzaren 19an, gazteei zuzendutako pintura lehiaketea egingo dabe Leioako Aterpen, goizeko 08:00etatik 15:00etara. 16 eta 35 urte arteko lagun guztiek izena emon leikie Gazte Bulegoan.

Beste alde batetik, udarako alternatibak aztertzeko aukerea eukiko dabe 15 eta 30 urte arteko leioaztarrek eta gazte alkarte guztiek Gazte Bulegoak antolatu dauzan jardunaldiei esker.

Udarako alternatibak aztertu

Maiatzaren 22tik 24ra bitartean izango dira saioak, arrastian, hezkuntza, beharra eta alkartasunagaz lotutako udarako programak aztertzeko, beste gai batzuen artean.

Eta amaitzeko, bagilaren 30etik garagarriaren 5era bitartean bidaia egingo dabe, abenturazko kirola praktiketako helburuagaz. Gazteei zuzendutako ekimen guzti horreen ganeko informazioa Aterpe Gazte Bulegoan lortu leiteke, Leioako Sabino Arana kaleko 48an.

GETXO. Beharrok datorren urteko udarako amaituta egongo dirala uste dabe

700.000 euro erabiliko dabez Bidezabal eta Ollaretxe artean trafikoa hobeto bideratzeko

V.M. |

Biribilgune barri bi egiteko proiektua onartu eban Getxoko Udalak barikuan izandako udalbatzean, Algortako Bidezabal, Sarrikobaso eta Ollaretxe kaleen arteko inguruan trafikoa hobeto bideratzeko. Horrezaz ganera, proiektu horren bidez Uribe Kostako saihesbidetik Arri-nagara joateko bidea be aton-

duko dabe, inguru hori Algortagaz hobeto lotzeko, Andres Uriarte Urigintza arloko ardura-dunak atzo emondako prentsaurrekoan azaldu eban.

Hain zuzen be, biribilguneak egiteaz ganera, oinezkoentzako 10 bide egingo dabez errepidearen zati horretan. Bidezabale-ra doan aldapea be atonduko dabe, espaloiak zabalduko dabez eta aparketako lekuak be

egokituko dira, leku batzuetan kopurua handituz.

Proiektua gauzatzeko aurrekontua 700.000 eurokoa da. 300.000 euro aurreinbertiduko dabez, eta ganerako guztia datorren urtean. Beharrak egiteko 8 hilabeteko epea jarri dabe, eta 2003ko udarako obrea amaituta egongo dala itxaroten dabe herriko agintariek.

LABURAEAN

GETXO

Orioko Aterpetxean igaroko dabe asteburu bat herriko ume euskaldunek Bizarra Lepoan alkarteari esker

Bizarra Lepoan Euskera Alkarteak umeengana jo gura dau euskerearen erabilera sustatzeko helburuagaz. Horretarako, Bapiruko asteburuak izeneko egitasmoa ipini dau martxan. Horren bidez, Getxon euskerazko eredueta ikasten daben umeek asteburuak giro euskaldunean igaroteko erea eukiko dabe aurrerantzean. Arabako Barrian eta Gipuzkoako Orion dagozan aterpetxetara joateko asmoa eukien antolatzaileek hasieran. Zoritzarrez, uste baino ume gitxiagok emon dabe izena, eta azkenean asteburu biok asteburu bakar baten batu dabez. Maiatzaren 10etik 12ra doan astebururako antolatu dabe txangoa, Orioko aterpetxera. Izena emoteko epea maiatzaren 6an amaituko da. Informetako: 94 491 43 57.

Txistu eta dantza ikuskizuna Algortan

Kulunka munduari bira izeneko ikuskizuna eskainiko dau Algortako Getxo Antzokian Xaramel taldeak, gaur iluntzeko 20:00etan, Ibilaldiari Adi kanpainearen barruan eratu dabezan Euskera gozagarri euskerazko jardunaldietan. Bertoko txistu eta dantza ikuskizuna eskainiko dabe Algortako antzokian; sarrerak gonbidapenak dira, eta Kultur Etxean lortu leitekez. Bihar, maiatzaren 1ean, amaituko dira jardunaldiak, umeentzako pelikula bate-gaz.

Raid Gaztea egingo dabe maiatzaren 19an

Algortako Scout Taldeak Getxoko Raid Gaztea antolatu dau hirugarrenez maiatzaren 19rako. Kirol txapelketea da hori, eta partaideek piraguan ibilteko aukerea izango dabe besteak beste. Ekimenean gura daben pertsona guztiek hartu leikie parte, eta horretarako 10 euro sartu behar dira Aurrezki Kutxako ondorengo kontu zenbakian: 3035 01 08 08 108 1 04176 0. Informaziorako telefono zenbakiak honexek dira: 639 24 81 51 eta 670 27 59 56.

Datorren urteko uda osterako amaitu gura dabe Ereaga Algortagaz lotzeko igogailua

Algortako Maria Cristina Ereagako hondartzeagaz lotuko dauen igogailua 700.000 pertsona inguruk erabiliko dabe urtean, Getxoko Udalak proiektuaren bideragarritasuna neurtzeko eskatu eban ikerketaren arabera. Zerbitzu barria bataz beste 2.000 pertsonak erabiliko dabe egunero, eta erabilera handia izango da batez be udaberrian eta udan, inkesteak di-noenez. Getxoko Udalak 90.000 euro baino gehiago erabiliko dauz proiektua diseinetako, eta igogailua egiteko aurrekontua, lehenengo kalkuluen arabera, milio bat euro ingurukoa izango da. Igogailua datorren urterako euki gura dabe, baina seguruenik uda igaro arte ezin izango da obrea amaitu.

AGENDEA

GETXO

Erakusketea: Antzezaleak, Getxoko artisten alkarteko kideek eginiko beharrak ikusgai dagoz Algortako Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Erakusketea maiatzaren 11ra bitartean bisitatu ahal izango da.

Elkarri: Bake konferentziaren ganeko berbaldia, gaur Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Getxoko Elkarriko tailerrak antolatuta. Berbaldia 19:30ean hasiko da, eta sarrerea doan izango da.

Txangoa: Egizu Getxo Euskaldun egitasmoaren arduradunek urteerea gertau dabe maiatzaren 5erako, datorren domekarako, Kortezubiko Basondo parke naturalera. Sarrerea 5 euroan dago nagusientzat, eta 3 euroan umeentzat. Izena emoteko telefonoak honexek dira: 94 491 43 57 eta 605 73 99 16.

GETXO

Mario Pardo aktorea Zine Jardunaldietan

Mario Pardo aktoreak gaur emongo dauen berbaldia-gaz amaituko dabez zine jardunaldiak, Leioako Perseo bideo forumak antolatu-tuta. Pardok zinea, antzerkia eta telebisinoaren ganedan daukan ikuspuntua azalduko dau, iluntzeko 20:00etatik aurrera Sabino Arana kultur gunean. Ekitaldirako sarrerea doan izango da. Mario Pardok 30 urte daroaz beharrean zinean, antzerkian eta telebisinoan. *La fuga de Segovia* pelikulan eta *Fortunata eta Jacinta* telesailan agertu da aktorea besteak beste.